

Declaración sobre la protección de la mujer y el niño en estados de emergencia o de conflicto armado

Proclamada por la Asamblea General en su resolución 3318 (XXIX), de 14 de diciembre de 1974

La Asamblea General,

Habiendo examinado la recomendación del Consejo Económico y Social contenida en su resolución 1861 (LVI) de 16 de mayo de 1974,

Expresando su profunda preocupación por los sufrimientos de las mujeres y los niños que forman parte de las poblaciones civiles que en períodos de emergencia o de conflicto armado en la lucha por la paz, la libre determinación, la liberación nacional y la independencia muy a menudo resultan víctimas de actos inhumanos y por consiguiente sufren graves daños,

Consciente de los sufrimientos de las mujeres y los niños en muchas regiones del mundo, en especial en las sometidas a la opresión, la agresión, el colonialismo, el racismo, la dominación foránea y el sojuzgamiento extranjero,

Profundamente preocupada por el hecho de que, a pesar de una condena general e inequívoca, el colonialismo, el racismo y la dominación foránea y extranjera siguen sometiendo a muchos pueblos a su yugo, aplastando cruelmente los movimientos de liberación nacional e infligiendo graves pérdidas e incalculables sufrimientos a la población bajo su dominio, incluidas las mujeres y los niños,

Deplorando que se sigan cometiendo graves atentados contra las libertades fundamentales y la dignidad de la persona humana y que las Potencias coloniales, racistas y de dominación extranjera continúen violando el derecho internacional humanitario,

Recordando las disposiciones pertinentes de los instrumentos de derecho internacional humanitario sobre la

Larrialdi edo gatazka armatu egoeran emakumearen eta haurraren babesari buruzko adierazpena

Biltzar Orokorrak aldarrikatua, 1974ko abenduaren 14ko 3318 (XXIX) ebazpenean

Biltzar Orokorrak

Azterturik Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 1974ko maiatzaren 16ko 1861 (LVI) ebazpenean jasotako gomendioak,

Adieraziz bere kezka sakona, dela larrialdietan dela bakea, determinazio askea, nazio-askapena eta independentziaren aldeko gatazka armatuen aldietan biztanleria zibilaren emakume eta hurrek jasan ditzaketen sufrimenduengatik, sarri askotan horiek ekintza giza legegabekoen biktima direlako eta, ondorenez, kalte larriak jasaten dituztelako,

Jakitun izanik munduko herrialde askotako emakume eta haurren sufrimenduak, bereziki zapalketa, eraso, kolonialismo, arrazakeria, arrotzen menderatzea eta atzerritarren zapalketat,

Erabat arranguraturik, jarraikoen gaitzespen orokor eta zalantzarik gabekoa izan arren, kolonialismoak, arrazakeriak, arrotzen menderatzeak eta atzerritarren zapalketak herrialde asko menperatzen dituztela oraindik euren uztarran, modurik ankerrenean nazio-askapen mugimenduak zapalduz eta galera handiak eta ezin zenbatuzko pairamenak eraginez euren mende dagoen biztanleriari, emakumeak eta haurrak barne,

Deitoratuz, dela oinarrizko askatasunen eta gizakien duintasunaren aurka atentatu larriak egiten jarraitzea, dela potentzia kolonialek, arrazistek eta atzerritarrek giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea urratzen jarraitzea,

Gogoratu bake eta gerra denboretan emakumearen eta haurraren babesari buruz nazioarteko giza zuzenbideko

protección de la mujer y el niño en tiempos de paz y de guerra,

Recordando, entre otros importantes documentos, sus resoluciones 2444 (XXIII) de 19 de diciembre de 1968, 2597 (XXIV) de 16 de diciembre de 1969 y 2674 (XXV) y 2675 (XXV) de 9 de diciembre de 1970, relativas al respeto de los derechos humanos y a los principios básicos para la protección de las poblaciones civiles en los conflictos armados, así como la resolución 1515 (XLVIII) del Consejo Económico y Social, de 28 de mayo de 1970, en la que el Consejo pidió a la Asamblea General que examinara la posibilidad de redactar una declaración sobre la protección de la mujer y el niño en estados de emergencia o de guerra,

Consciente de su responsabilidad por el destino de la generación venidera y por el destino de las madres, que desempeñan un importante papel en la sociedad, en la familia y particularmente en la crianza de los hijos,

Teniendo presente la necesidad de proporcionar una protección especial a las mujeres y los niños, que forman parte de las poblaciones civiles,

Proclama solemnemente la presente Declaración sobre la protección de la mujer y el niño en estados de emergencia o de conflicto armado e insta a todos los Estados Miembros a que la observen estrictamente:

1. Quedan prohibidos y serán condenados los ataques y bombardeos contra la población civil, que causa sufrimientos indecibles particularmente a las mujeres y los niños, que constituyen el sector más vulnerable de la población,
2. El empleo de armas químicas y bacteriológicas en el curso de operaciones militares constituye una de las violaciones más flagrantes del Protocolo de Ginebra de 1925, de los Convenios de Ginebra de 1949 y de los principios del derecho internacional humanitario, y ocasiona muchas bajas en las poblaciones civiles, incluidos mujeres y niños indefensos, y

hitzarmenen xedapenak,

Gogora ekarriz, beste dokumentu garrantzitsu batzuen artean, ondorengo ebazpenak: 1968ko abenduaren 19ko 2444 (XXIII) ebazpena, 1969ko abenduaren 16ko 2597 (XXIV) ebazpena eta 1970ko abenduaren 9ko 2675 (XXV) eta 2674 (XXV) ebazpenak, giza eskubideen eta gatazka armatuetan biztanleria zibilaren babeserako oinarritzko printzipioen errespetuari buruzkoak; eta baita Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren 1970ko maiatzaren 28ko 1515 (XLVIII) ebazpena, honetan Kontseiluak Biltzar Orokorrari eskatu ziola larrialdi edo gerra egoeran emakume eta haurren babesari buruzko adierazpena idazteko aukera aztertzeko,

Jakitun izanik berez duen erantzukizunaz, hurrengo belaunaldiaren eta amen gerogarrenari buruz, amak baitira gizartean, familian eta, bereziki, seme-alaben haztean garrantzi handiko eginkizuna dutenak,

Kontuan izanik biztanleria zibilaren parte diren emakume eta haurrei babes berezia emateko beharra,

Ospe handiz aldarrikatzen du larritasun eta gatazka armatu egoeretan emakume eta haurren babesari buruzko adierazpen hau, eta estatu kide guztiei hertsiki bete dezaten agintzen du:

1. Debekatu egiten dira eta zigortuak izango dira biztanleria zibilaren aurka egindako eraso eta bonbardaketak, horiek ikaragarritzko sufrimendua eragiten badute bereziki emakume eta haurrengan, biztanleriaren talde ahulena osatzen baitute horiek,
2. Operazio militarretan arma kimiko eta bakteriologikoak erabiltzea, 1925ko Ginebrako Protokoloaren, 1949ko Ginebrako Hitzarmenen eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen printzipioen urratze nabarienetako bat da, eta biztanleria zibiletan hildako ugari eragiten ditu, babesgabe dauden emakume eta haurrak barne; hortaz, horrelako

será severamente condenado.

3. Todos los Estados cumplirán plenamente las obligaciones que les impone el Protocolo de Ginebra de 1925 y los Convenios de Ginebra de 1949, así como otros instrumentos de derecho internacional relativos al respeto de los derechos humanos en los conflictos armados, que ofrecen garantías importantes para la protección de la mujer y el niño.

4. Los Estados que participen en conflictos armados, operaciones militares en territorios extranjeros u operaciones militares en territorios todavía sometidos a la dominación colonial desplegarán todos los esfuerzos necesarios para evitar a las mujeres y los niños los estragos de la guerra.

Se tomarán todas las medidas necesarias para garantizar la prohibición de actos como la persecución, la tortura, las medidas punitivas, los tratos degradantes y la violencia, especialmente contra la parte de la población civil formada por mujeres y niños.

5. Se considerarán actos criminales todas las formas de represión y los tratos crueles e inhumanos de las mujeres y los niños, incluidos la reclusión, la tortura, las ejecuciones, las detenciones en masa, los castigos colectivos, la destrucción de viviendas y el desalojo forzoso, que cometan los beligerantes en el curso de operaciones militares o en territorios ocupados.

6. Las mujeres y los niños que formen parte de la población civil y que se encuentren en situaciones de emergencia y en conflictos armados en la lucha por la paz, la libre determinación, la liberación nacional y la independencia, o que vivan en territorios ocupados, no serán privados de alojamiento, alimentos, asistencia médica ni de otros derechos inalienables, de conformidad con las disposiciones de la Declaración Universal de Derechos Humanos, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, el Pacto Internacional de Derechos Económicos,

egintzak gauzatzea zorrotz zigortua izango da.

3. Estatu guztiek oso-osorik beteko dituzte 1925ko Genebako Protokoloak eta 1949ko Genebako Hitzarmenek ezartzen dizkieten betebeharrak, eta baita gatazka armatuetan giza eskubideen errespetuari buruzko nazioarteko zuzenbidearen beste instrumentu batzuek ezarritakoak ere; horiek guztiek, emakume eta haurren babeserako berme garrantzitsuak eskaintzen dituzte.

4. Estatuek, gatazka armatuetan, atzerriko lurraldeetako operazio militarretan edo oraindik botere kolonialen mende dauden lurraldeetako operazio militarretan parte hartzen dutenek, beharrezko den indar guztia erabiliko dute gerraren txikiziotatik emakume eta haurrak baztertzeko.

Beharrezko neurri guztiak hartuko dira ondorengo egintzen debekua bermatzeko, hala nola, pertsekuzioa, tortura, zigor-neurriak, tratu apalesgarriak eta bortizkeria, bereziki biztanleria zibilaren kide diren emakume eta hurrekiko.

5. Ekintza kriminaltzat hartuko dira errepresio modu guztiak eta emakume eta hurrei egindako tratu krudel eta ankerrak, bertan direla giltzapean jartzea, tortura, hilketak, pertsona multzo handien atxiloketak, zigor kolektiboak, etxebizitzak suntsitzea eta norberaren egoitzatik nahitaez botatzea, horiek gerra-egileek gauzatutakoak direnean operazio militarretan edo okupatutako lurraldeetan.

6. Biztanleria zibilaren kide diren emakume eta haurrak, nahiz larrialdi egoeran direnak, nahiz bakea, determinazio askea, nazio-askapena eta independentziaren aldeko gatazka armatu egoeretan direnak, edo okupatutako lurraldeetan bizi direnak, ostaturako, elikagaietarako, medikuguntzarako eta besterenduezinak diren beste eskubide batzuetaz ez dira gabetuak izango, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren, Haurren Eskubideei

Sociales y Culturales, la Declaración de los Derechos del Niño y otros instrumentos de derecho internacional.

buruzko Adierazpenaren eta nazioarteko zuzenbidearen beste instrumentu batzuen xedapenekin bat etorritz.